

# HERNANI, ILUNPETIK ARGITARA

Frankismoaren langile ikusezinak, argazkian atzeko partean agertzen direnak, lehen lerrora ekarriak

**H**ernaniko udal artxiboan apen-  
as dagoen herriko emakumeak lan munduan agertzen diren argazkirik. Hutsune hori ikusita, Hernaniko Udaleko Berdintasun Sailak bultzatzen duen ikerketa bekak helmuga horixe jarri du bere hiru garren edizioan: 1939-1975 urte bitarteko Hernaniko emakumeek egindako lan ezberdinen testigantza jasotzea, bai ahoz eta baita argazkitan ere. Maialen Apezetxea Lujanbio eta Mikel Ozaita Azpiroz eskuratu zuten aipatu beka eta liburua mahai gainean jarrita azaldu dizkigute lanaren nondik norakoak.

«Lan hau hasteko udal artxibora joan ginen zer zegoen ikusteri eta ez genuen topatu emakumeak lan munduan agertzen ziren argazkirik. Ospakizunak, frankistek egiten zituzten desfiteak, bazkariak... horietan ez da emakumerik agertzen», hasi da Apezetxea. Berak eta Ozaitak egin duten ikerketak 1939-1975

 **JENDARTEA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Frankismoak nagusiki lehen partean (1939-1959) ezarrituen bere zutoin ideologikoak. Emakumeak «etxeko aingerua» behar zuela agindu zuen, balioa onartzen zitzaien lanetatik aparte. Emakumeak, baina, etxean eta etxetik kanpo lan egin behar izan zuen, ezkutuan eta egoera prekarioan. Hernaniko garaiko argazkia jaso dute.

urte bitartea hartu du. «Frankismoan aldaketa handiak eman ziren garaia izan zen; kulturalki, ideologikoki, demografikoki... Testuinguru horren baitan emakumeek egindako lana ez bazen orain jasotzen, betirako galduko zen ahanzturan. Hau zen testigantza horiek jasotzeko momentua, bestela galdu egingo ziren», gaineratu du Ozaitak.

Esan bezala, ahozko testigantzak ez ezik, irudiak jasotzeko ere ahalegin handia egin dute eta horrek buruhauste dezente sortu dizkie. «Garai batean argazkiak oso egun berezietan bakarrik ateratzen ziren, ez egunerokoan eta lanean. Fabrikako

argazki oso gutxi topatu ditugu, akaso bestelako sozializazio gu-  
neetan, tabernetan, dendetan... gehixeago, baina, fabriketan, oso-oso gutxi».

Topatu dituzten gutxi horiek, gainera, ematen dute zer pentsatua, kasu askotan emakumea bigarren plano batean agertzen delako, fokutik kanpo. «Gogoan daukat mus txapelketa bateko argazkiarekin gertatu zitzaiguna. Lehen planoan txapelketa irabazi duten gizonezkoak ageri dira eta, atzeko planoan, tabernako barraren atzean, emakume bat. Argazkia digitalizatzeraren eta dendakoak plano itxi eta emakumea kendu zuen ar-

gazkitik, garrantzirik ez zuela-  
koan. Eta juxtu guk emakume hori agertzea nahi». Apezetxeak kontatzen duen gertaera horrek ederki laburbiltzen du «Ilunpetik argitara» liburuaren arima, horixe izan baitu helburua: bigarren planoan eta ezkutu antzera zegoen emakume langilea lehen planora ekartzea eta bere testigantza jasotzea.

Zaila izan da argazkiak topatzea, baina garrantzitsua. Iker-tzaileen hitzetan, «norbanakoa-  
ren, familiaren, jendartearen edota nazioaren memoria transmititzeko berebiziko dokumentua izan daitezke garaiko argazkiak, oroimen piztaile eta bizi izandakoaren ilustratzaile».

Testuinguruan kokatuta, iker-tzaileek nabarmendu dute garai hartan boteredunek beren boterea legitimatzeko erabiltzen zituztela argazkiak. Alegia, errazagoa da fabrika baten irekiera jasotzen duen argazkia topatzea fabrika horren egunerokoan langileak lanean jasotzen dituen baina. Gainera, emakumeak lan esparruan jasotzen dituen argazkiak gizonezkoenak baino urriagoak dira. Beraz, garaiko argazkietan emakumeen ikusezintasuna bikoitza zen; langile-

Alboko orrialdean Maialen Apezetxea Lujanbio eta Mikel Ozaita Azpiroz, «Ilunpetik argitara. Emakume langileak iruditzen. Hernani 1939-1975» lanaren egileak. Jon URBE | ARGAZKI PRESS



Ezkerretik hasita, Juanito Urruzola (haurra), Paki Aranburu eta Ixabel, segur aski azokatik bueltan, 1957. urtean. GAUR8

## «EZER» EGIN EZ ZUTENAK

**I**lunpetik argitara» lanak Hernaniko hainbat emakumeren testigantzak jaso ditu, dezente kostata gainera. «Askorengana hurbildu orduko esan ziguten haiek ez zutela ezer kontatzeko, ez zutela ezer egin. Gero, pixkanaka, beren bizitza kontatzen hasi eta berehala konturatu ginen lan izugarria egin dutela, aitortu gabea eta baloratu gabea. Emakume jaio orduko «biga-

rrren mailako» izaki modura hartuak izan dira asko eta zenbait lan eman zaizkie, derri gorrez. «Haurra zenetik bere anaia guztiak zaindu zituen emakumeak kontatu zigun ezkondu eta gero hobetu egin zela bere egoera. 'Zergatik?', galdetu genion harrituta. 'Lehen sei gizonezkoren alkandorak plantxatu behar nituen, eta, ezkondu eta gero, bakarrarena'».

Amatasunaren eta aitatasunaren gaia ere lantzen du



ikerketak. «Gizonezko asko iluntzean etxeratzen ziren, haurrak dagoeneko lo zeudela. Muxu bat eman eta kito. Horretara mugatzen zen bere aitatasuna. Eta bizitza sozial askoz oparoagoa zuten, elkarrekin eta tabernetan ibiltzen ziren».

Emakumeek, baina, bazuten bere sarea. «Haiekin hizketan konturatu gara bazutela elkar laguntzeko sarea. Familia handi bat bezala ziren eta bizilagunen artean laguntza handia izaten zen, haurrak zaintzeko orduan, esaterako. Hori oso pozgarria izan da».

Lan mardula amaituta, iker-tzaileei askotariko sentazioak geratu zaizkie. «Batetik, nabarmena da gaur egungo egoerak sustrai oso sakonak dituela. Eta

atentzioa eman digu oraindik zaintzak zer-nolako pisua daukan emakumeengan, bai haurren zaintzan eta bai helduen zaintzan. Alor askotan ez dugu asko aurreratu eta Frankismo garaiko ideologia oraindik oso sartuta daukagu; ama ona izatearen ideia, etxeko aingerua izatearena... lan handia daukagu oraindik egiteko».

Garai hura bizi zuten emakumeekin hizketan, nabarmendu beharra dago denbora gutxian aldaketa izugarria jasan duen belaunaldia dela, eta asmatu duela aurrera egiten, nahiz eta igartzen zaien Frankismoak noraino inposatu zien bere mundu ikuskerara. «Adibidez askori iruditzen zaie gaur egungo emakumeak asko ibiltzen dire-

la kalean, gizonen pare ibiltzen direla tabernan, eta hori ez dute ondo ikusten. Ez da ahaztu behar zer-nolako jazarpena sufritu duten eta horrek bere arrastoa uzten du», nabarmendu dute. «Harritu gaitu belaunaldi horretako emakumeek zer-no-

lako indarra duten, sufritu duten egoera zapaltzaile horren gainetik nola asmatu duten bizirauten. Eta, gainera, badituzte tresnak egungo zenbait egoera akaso belaunaldi gazteagoek baino hobeto kudeatzeko. Egungo kulturantzitasuna, adi-

**«Haiekin hizketan konturatu gara emakumeek elkar laguntzeko sarea bazutela. Familia handi bat bezala ziren eta bizilagunen artean laguntza handia izaten zen, haurrak zaintzeko adibidez»**

**«Alor askotan ez dugu asko aurreratu eta Frankismo garaiko ideologia oraindik oso sartuta daukagu; ama ona izatearen ideia, etxeko aingerua izatearena...»**

bidez, haiek badakite zer den, gazteagoak zirenean Hernanin eman zen boom demografikoa bizi izan zutelako, eta akaso empatia gehiago izan dezakete mi-gratzaileekin».

«Sexualitatearen gaiarekin ere harritu gaituzte. Garai hartan, nahiz eta oso gaizki ikusiak egon, bazeuden abortatzen zuten emakumeak eta horiei buruz modu askean hitz egin digute, normaltasunez eta taburik gabe. Edo ama bakarrak zirenez ere hitz egin digute. Ezusteko politak izan ditugu el-karrizketetan».

Lanak Hernanin jarri du fokua, baina bistaraturako errealitateak eta ateratako ondorioek balio dute Euskal Herriko beste toki askotarako ere.

ak zirelako lehenbizi eta emakumeak zirelako gero. Apezetxeak eta Ozaitak oso presente izan dituzte zailtasun eta hutsune horiek lana egiteko bidean, eta argazkiek kontatzen ez dutena testigantzen bidez jasotzen saiatu dira.

**BIZITZEA TOKATU ZITZAIENA**

Frankismoaren barruan bi etapa bereiz daitezke: lehena, 1939-1959 urte bitartekoa, eta, bigarrena, 1960-1975 bitartekoa. Ikerketak lehen etapan jarri du nagusiki arreta, «garai honetan ezarri baitzituen Frankismoak bere diktadura ezaugarritu zuten oinarriak».

Francoren erregimenarentzat emakumea azpitik zegoen izakia zen, ez jendartean ez politikan lekurik ez zuena, eta, ondorioz, etxekoandre eta ama izatera bideratua zegoena. Emakumeak etxeko zereginetara bideratu eta gizonen mende egon behar zuen, lehenengo aitaren mende, eta, gero, senarraren mende. Biologia oinarri hartuta, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak bistaratzen lan handia egin zuen faxismoak, emakumeak ama izatera mugatu behar zuela defendatuz.

Horren baitan justifikatzen zuten emakumea alor ekonomikoan, sozialean eta juridikoan diskriminatua egotea.

Helburua hori izanik, Frankismoak ahalegin handia egin zuen emakume idealaren ereduak garatzen. «Emazte eta ama on eta eredugarria, etxeko aingerua, emakume morala eta dezentea, janzkera eta portaera zorrotz zaintzen zituena». Erregimenak espresuki sortu zuen 1934. urtean “Sección Femenina” izeneko erakundea eta garaian eredu hori indartzen zuten emakumeentzako aldizkariak ere ugaritu egin ziren.

«Oraindik garai hari buruz hitz egin eta normalizat hartzen dute emakume izateagatik hartu behar zuten zama; lanari, zaintzari eta ideologiari lotutako zama. Guk kanpotik inposizio horiek guztiak oso garbi ikusten ditugu, baina garai hartako emakume askorentzat normaltasuna zen eta kito», nabarmendu du Apezetxeak.

Francoren erregimenak lan merkatuko bidea itxi zien emakumeei, horretarako arauak eta legeak indarrean jarritz. Helburua emakumeak etxeko jardueretara mugatzea zen, are gehia-

go ezkontuta bazegoen. 1942. urtetik aurrera, lanaren inguruko araudiek –“Reglamentaciones de Trabajo” deiturikoek– ezkontzean emakumezkoek lanpostua utzi behar zuela agintzen zuten. Eta hala gertatzen zen kasu gehienetan.

Erregimenarentzat oso garrantzitsua zen emakumea etxean egotea, eta lan merkatuan aritzea feminitatearen eta amatasunaren kontrakoa zela esaten zuen. Hala ere, eta ideologiak eta arauak egonagatik, emakume askok egiten zuen lan etxean eta etxetik kanpo, beharrrak aginduta eta bizirauteko. Lan horiek prekarioak izaten ziren oso eta soldata eskasak izaten zituzten.


**BASERRIKO LAN GUZTIEZ ARDURATZEN**

Baserrietako errealtatea jasotzen ere saiatu dira ikerlariak. Izan ere, nekazaritza giroan ohikoa zen emakumeak lan guztiez arduratzea, nahiz eta garaiko legeek beti egiten zuten gizonezkoaren alde emakumearen kalte larrian. «Jaso dugunez baserriak gizonezkoen esku zeuden eta legeak hala ahalbidetzen zuen. Garai hartan emakume baten sinadurak ez zuen ezertarako ba-

lio atzean gizonezko baten babesik ez bazuen. Baina, gero, emakumeak baserriko lan guztiak egiten zituen eta gizonezkoek, lan jakin batzuk. Baratzak etxeko emakumeen esku zeuden eta haiek arduratzen ziren egunero azokara produktu freskoak eramateaz. Aldiz, abere handien salerosketaz gizonezkoak arduratzen ziren, urtean lauzpabost aldiz eta jai giroan. Lan lotuena eta gogorrena emakumeen bizkar egoten zen. Egunero esnea etxez etxe partitzea, adibidez», nabarmendu du Ozaitak.

Atentzioa eman omen dio, orokorrean, emakumeek aisialdirik ez zutela ikusteak. «Alor eta giro guztietan, emakumeek ez zuten aisialdirik. Beti zeozerrren aitzakia behar zuten elkartzeko. Ez ziren etxe batean gertatzen lagunekin kafea edo txokolatea hartzeko, josteko gertatzen ziren, eta, aitzakia horrekin, elkartu eta hizketan aritzen ziren», esan du Ozaitak.

Hernanin, gainera, oso ohikoa zen zelofan poltsak etxean egitea. Eskulan finak ziren eta horiek emakumeek egitekoak zirela ulertzen zen. Lan eskubiderik gabe, beltzean ordainduta



Hernaniko historian oso ugariak izan dira taberna eta sagardotegiak. Etxean bezala horietan ere emakumeak sukaldeko lana eta zerbitzatzekoa egin izan du, argazkian jasotzen denez.

GAUR8

eta produkzioaren arabera ari-  
tzen ziren poltsak egiten, lan  
horren aitzakian etxeetan el-  
kartuz. «Industriak eskulan  
merke eta prekarizatua behar  
zuen eta sistemari ez zitzaion  
gustatzen emakumeak etxetik  
kanpo lan egitea. Beraz, etxee-  
tara eramaten zieten lana, ezku-  
tuan bezala. Horrela lortzen zu-  
ten lan pribatu eta prekarizatua  
izatea, baita langileen batasuna  
ahultzea ere», esan du Mikel  
Ozaitak.

**BOOM DEMOGRAFIKOA**

Frankismo garaian Euskal Herri-  
ko zenbait zonaldek garapen in-  
dustrial bortitza ezagutu zuten,  
bertako bizimodua guztiz alda-  
tu zuena, baita pertsonen arteko  
harremanak eta komunitatea-  
ren izaera ere. Hernani horren  
adibide izan zen. Industriaren  
boomak boom demografikoa  
ekarri zuen, fabrika handiak ire-  
ki ziren ilaran eta jendea mul-  
tzoka etorri zen horietara lane-  
ra, asko eta asko Euskal Herritik  
kanpokoak.

1939 eta 1975 bitartean Herna-  
niko populazioa ia laukoiztu  
egin zen. 1975. urtean Estatu es-  
painoletik etorritakoen kopurua  
%30,8koa zen, eta horrek erabat



«AMA ETA EMAZTE ONAK IZATEKO HEZIAK»

Hezkuntza mugatu zen emakumeentzat. Alde  
batetik gizezkoek eta emakumezkoek  
hezkuntza desberdina jasotzen zuten eskola  
desberdinetan, baserri auzoetan izan ezik.  
Hartara, gizezkoek lanpostu  
kualifikatuertarako prestakuntza jasotzen  
zuten, eta, emakumezkoek, aldiz, ez. Gainera,  
fabriketan lanean hasitako askok eta askok  
eskola oso azkar utzi zuten, batzuek 11 urte  
betetzerako. Liburuan jasotzen denez, «eskolara  
joan nintzen 13 urte bete nituen arte, eta, gero,  
kito, lanera. Aulkitxo bat jarri zidaten ez  
nintzelako ondo iristen plantxara eta horrela  
aritu nintzen, nire kasa konpondu nintzen  
arte».

Gainera, neskatoak mojen eskolara eramaten  
zituzten, eliza tradizionalaren aginduetara,  
familia eredu tradizionala bultzatu eta  
emakumea mendeko izateko hezteko. «Ama  
onak eta emazte onak izan behar genuen eta  
horretarako hezten gintuzten», jaso dute.

«Hernaniar batek kontatu digunez, haurra  
zela ama gaixotu egin zen eta bera egin zen  
etxeko lanen kargu. Atzetik sei anaia zituen eta  
horiek ikasketak egin zituzten, baina berak ez,  
bera etxerako geratu zen. Enkarguak egiten  
zituenean lotsatuta pasatzen omen zen  
eskolaren ondotik, lagunak han ikusten  
zituelako. Berak esaten du ez zuela  
haurtzarorik izan».



Ezkerreko orrialdeko bi  
argazkietan Hernaniko  
tabernetan bizitako aisialdi  
momentuak ageri dira.  
Batean zein bestean  
emakumea barraren atzean  
eta bigarren planoan ageri  
da. Lerroon bi aldeetara  
fabriketan lan egiten zuten  
emakume taldeak.  
Soldatetan  
desberdintasunak izaten  
ziren eta behin ezkontuta  
askok fabrika utzi beharra  
izaten zuten, legeak  
aginduta.  
GAUR8



aldatu zuen komunitatearen izaera.

«Garai hartan langile auzo asko sortu ziren Hernanin eta bizi baldintzak beti ez ziren oso dui-  
nak izaten. Etxebizitzaren eskaria hain handia zenez –bai alokai-  
rurako eta bai erosteko–, prezio-  
ek gora egin zuten ikaragarri eta  
zaila zen familia batek etxe bat  
beretzat hartzea. Horregatik  
ohikoa zen familien artean  
etxebizitza partekatzea edo apo-  
pilo bizitzea», kontatu du Ape-  
zetxeak. Liburuan jasotzen den  
testigantza baten arabera, «etxe  
berean sei familia bizi ginen. Lo-  
gela batean bi ohe jarri eta hor  
sartzen ginen familia osoa. Hau-  
rrak ohe batean, eta, bikotea,  
bestean. Txikiena gurekin sar-  
tzen zen ohean. Oso justu bizi  
ginen».

Hernanin jaiotakoen eta mi-  
gratzaileen arteko harremana  
askotarikoa izan zen. Batzuek  
pareko ikusten zituzten, fabri-  
kako lankide eta lagun. Beste ba-  
tzuek, berriz, kanpotik zerbait  
kentzera etorritakoa ikusten zu-  
ten, estereotipoetatik eta ustee-  
tatik. «Badugu joera migratzai-  
lea behar gorrian dagoen  
pertsona bezala ikustekoa, bizi-  
tza hobeago baten bila datorre-

na. Beti ez da hala izaten, eta ja-  
sotako testigantzetan ere ikusi  
dugu hori. Baziren Hernanira  
etorri zirenak bizimodu berri  
bat nahi zutelako, toki berriak  
ezagutu nahi zituztelako», gai-  
neratu du Ozaitak.

**BASERRIAREN GAINBEHERA**

Industriaren boomarekin, Her-  
nani nekazaritzari lotutako he-  
rri bat izatetik langile herri bat  
izatera pasa zen. Datu ofizialen  
arabera, 1860. urtean Hernanin  
langileen %56,6 lehen sektorean  
ari ziren lanean; 1962. urtean,  
%7,8, eta, 1975. urtean, %1,8. Ba-  
serriaren gainbehera, beraz,  
bortitza izan zen eta biziraun  
zuten baserri gutxi horiek ema-  
kumeek eutsi zituzten nagusiki.  
Batetik, emakumea baserrira ez-  
kontzean erabat lotzen zitzaion  
familiarari eta ustiapenari. Eta,  
bestetik, gizonezko askok base-  
rria utzi eta fabrikara egin zuten  
saltoa. «Emakume batek konta-  
tzen zigun nola ezkondu zenean  
amak aholku bakarra eman  
zion: ‘Ez ezazu ikasi ez behiak  
jezten ez segan, bestela senarra  
feriara lasai joango da eta ez zai-  
zu etxean azalduko hiru egune-  
an’», kontatu dute ikertzaileek.  
Liburuan jasotzen den testigan-

tza baten arabera, «baserriko  
emakumeak ez dauka ez denbo-  
ra librerik, ez festarik, ez dibe-  
rsiorik, ezta harremanak egiteko  
modurik ere auzotik kanpo. Ez  
du parte hartzen hiriko bizitzan,  
bere senarrak eta semeek ez be-  
zala, eta bakardadera kondena-  
tuta dago».

**FRANKISMOAREN LANGILE IKUSEZINAK**

Aurretik aipatu bezala, etxeko  
lanez bakarrik arduratutako  
emakume eredu bultzatu zuen  
Frankismoak. Gizonezkoa zen  
«etxerako ogia» ekarriko zuena  
eta emakumeak etxean geratu  
behar zuen. Ezohiko jarduera  
bihurtu zen emakumeak etxetik  
kanpo ere lan egitea. Eredu ho-  
rrek ekarri zuen bakarra emaku-  
mearen lana estaltzea, prekari-  
zatzea eta ekonomia ofizialetik  
kanpo kokatzea izan zen, berez  
zapaldua zena gehiago zapal-  
tzea, alegia.

1975. urteko datuen arabera,  
emakumeen %87,8 «lanik gabe-  
koak ziren», alegia, «ez-lan» gisa  
hartzen zen jardueretan aritzen  
ziren; lan produktiko, errepro-  
duktibo eta zaintzakoetan. Ofi-  
zialki lan egiten zutenen artean,  
%90 langile industrialak ziren;  
%6,4 enpresaburuak edo auto-

nomoak, %3,4 profesional libe-  
ralak eta %0,2 nekazariak.

Datu horiek agertzen dute  
emakume langileak noraino zi-  
ren ikusezinak eta mendekoak,  
oso ohikoa baitzen etxeko eko-  
nomia kaskarrari laguntze alde-  
ra isilpean eta modu prekarioan  
lanean aritzea; zelofan poltsak  
egiten edo jostun lanetan, esate-  
rako. Liburuan testigantza ema-  
ten duen emakume batek “es-  
klabo” hitza erabiltzen du urte  
askoan egin zuen lana definitze-  
ko. Ordutegi finkorik gabe ari-  
tzen omen zen, edozein unetan  
deitzen zioten dendatik beste  
hamar albornoj josi behar zi-  
tuela esanez. Gauzez eta astebu-  
ruetan lan egin behar izaten  
zuela ere kontatzen du.

Apopilotza familia aurrera  
ateratzeko beste estrategia bat  
zen, Hernanin industriaren bo-  
ma tarteko asko zabaldu zena.  
«Emakumeek familia eta apopi-  
loak zaintzeko lan guztiak egi-  
ten zituzten; etxea garbitu, su-  
kaldean aritu, arropa garbitu...  
eta, gainera, den-denak fisikoki  
eta psikologikoki osasuntsu  
egoteaz arduratzen ziren. Duela  
gutxi arte aintzat hartu ez den  
lan horrek balio ekonomikoa  
dauka».



Ezkerreko argazkian, Manoli Olano eta Xanti Lujanbio, Andre kaleko beren etxean, 1974. urtean. Emakumea josten ari da, eta, gizonezkoa, otordua egiten. Eskuinaldean, Juli ile apaindegian harturiko argazkia, 1969. urtean. Juli Ayerra Gomez ageri da emakume bati ilea apaintzen. GAUR8

